


Koloreztatzeko

Liburua

gure herriko

historia

ozagutuz





ERMUA

Korrikalaria kotxearen kontra

Demaseko ikusmira zegoen Ermuan 1911ko egun euritsu hartan. Desafio gogorra iragarritakoa: korrikalaria automobilaren kontra. Jokoa, Areitioko gaina nork ala nork lehenago hartu. Bere abarketa zuritxoekin, lasterketa guztian antxitxiketalaria irabazten joan bazen ere, Areitio gaineko lautadan abiadura hartu eta lau erroberadunak irabazi zuen norgehiagoka.



Pilotariak




Ehunetik gora puntarengo pilotariren sorleku izan da Ermua, beraietatik asko profesional mailan bizimodua ateratzen munduko bazterretan ibilitakoak. Palaz, eskuz, zestaz zein raketaz jokatu duten entzute handiko gizon eta andrazko ugari eman ditu gure herriak, guztiak ere ume-umetan hasitakoak, eta liso zegoen edozein hormtan saiaturuz, beraien lehen pilotakadak, etxean artilez egindako pilota jo eta jo.

Harrijasotzaileak

Herri-kirolen multzoan espezialitate mordoa dago: soka-tira, harri-jasotzea, txinga-eramatea, idi-probak, zaldi-mando probak, asto-probak, aizkolariak, kaskara-batzea, gizon-probak, palanka-jaurtiketa, bola-jaurtiketa, belar-ebagitzea, ahari-topeka, oilar-borroka, pilota, arrauna...

Gure herrian Ignacio Narbaiza, Felix Ugalde, Jesus Maria Pato aita-semeak eta Javier Valenciano harrijasotzaile ermuarrak proba eta apustu ugaritan ikusi ditugu, Ziriako Ortiz de Zaratek esatari-lanetan ziharduela.





Probalekua

Bizkaiko probalekurik zaharrena zen Ermukoa. Gipuzkoan sasoi baten debekatuta zeuden joko eta apustuak, horregatik Bizkaiko mugako lehen herri honetara jotzen zuten apustulari, probalari, idien jabe eta adin guztietako ikusleek. Gainera, gure herriko baserrietako idiak goi-mailako probetan ibili ziren.

Ermuko probaleku plazan dagoen proba-harria enkantxoan erabilitako bietatik zaharrena da: harri zakarra zen, aurre arin eta atze astunekoa, eta proba gaitzetarako erabiltzen zen.







Munduko txapelduna



Igor Astarloa munduko txapeldun zela esnatu ziren herritarrek 2003ko urriaren 13an. Mutikotan ziklokresean aritutako Santa Anako auzokideak profesional mailara egin zuen salto, eta galanta gainera: 27 urterekin Munduko Txirrindularitzaren txapela jantzi zuen Canadako Hamilton hirian jokaturako lehian, Ameriketan.

Santa Ageda - Etxegiña



*Zorion etxe hontako denoi
oles egitera gatoz.
Aterik ate ohitura zarrak
aurten berrizteko asmoz.*

*Ez gaude oso aberats diruz,
ezta ere oñetakoz.
Baiña eztarriz sano gabilta
ta kanta nahi degu gogoz.*

*Santa Ageda bezpera degu
Euskal Herriko eguna.
Etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.*


Aititagandik zetorkion
“Etxegiña” gaitzizena German
Uriguen bezala 1898an
bataiatutako bertsolari
ermuarrari.

Elgoibarrera bizitzera joan
aurretik, sei ahapaldiko “Salbea”
sortu zuen 1915ean, Santa
Ageda bezperan, urtearen
barruan hildakoen pegora
parean etxeartekoei elkartasuna
erakusteko propio abesteko
idatzi zuena.

Oraindik ere abesten da egun
horretako santa-eskeko
kalejiran.






San Blas



Irina, arrautza, azukrea, limoi-ura eta anisa. Uhm! Nahastatu, zapaldu, opil-forma eman, labean sartu eta kito! Amamak dio ez dela hain erraza San Blasari eskua hartzea, bere zertxoa duela: bateko gaineke zuria ez dela behar den bezala gogortzen, besteko masa larregi gogortu dela eta ez dela grausk! apurtzen... Horrela ere, gozoa baino gozoago ateratzen zaio! Niri gainean txokolate likidoarekin "San Blas" idaztea gustatzen zait ezer baino gehiago. Eta jatea, noski!

Eguen Zuri



“Ezkerra”, “eskuma”, “zuzen”, “zuzen”... uf, hau nahastea!
Begiak zapi ilunez estalita, makila bat eskuan, plazako mutur
batetik bestera artekoa egin behar, lagunok! Plazako
burrundadaren gainetik, txistu eta danborilaren soinua alboan,
“zuzen”, “zuzen”... tak! Ukitu dut, oilarraren kutxa ukitu dut!
Lagunek “Zorionak!” esaten didatela amestu dut. Ene, orduan
ametsa izan da! Hurrengo urtean parte hartzeko
gogotxo piztu zait.

Aratusteak



Inauteri, aratuste edo karnabal, mozorrotu, disfrazatu edo koko jantzi. Zenbat izen gauza bakarrarentzat!
Eguen Zuri arratsaldean hasi eta martitzen gauera arte izen haina aukera ditugu ez garenaren lekuan jartzeko edo
behintzat haren itxurarekin janzteko.



Hartza Eguna




Patxi Urkoko etorri jakun
lehengo egunian esaten
animali bat han ebilela
bazter guztiak apurtutzen
eskopetekin hara joateko
pizti hori harrapatzen
inguru hartako baserritarrak
ez ebela lorik egiten.
Hara joan ginen aldra ederra
zer ote zan hori ikusten.

Basobaltz eta Urko errekako
sastrak genduzan jorratu
baiña guk ezin izan genduan
animalirik bilatu
soñeko arropak apurtu arte
aurrera genduan jarraitu.
Non uste dozu adiskidia
egin genduala aurkitu?
Mañako lezan sartuta euan
hantxe egin genduan hartu.



Hartza Eguneko koplak 1934ko inauterietan abestu ziren lehen aldiz; Gillermo Bengoetxea "Txindurri" legez ezagutua zen kronista eta bertsolariak sortutako bertso sorta zen. Tuberkulosis gaixotasunak jotako mutil gazte batentzako diru-eskean kalez kale abestuz joateko apropos sortutako koplak dira. 1989 urtean berreskuratu ziren eta kalez kalekoa egiten jarraitzen da.



Dantzariak




Dantza eta musika beti egon dira
gure herriari lotuta.

Dantzari ona
izateko bizitasuna behar da, bai,
baina garrantzitsuagoa da belarri
ona edukitzea. Urte osoan gogor
prestatu behar jakineko dantza
emanaldiei aurre egiteko: sasoi
baten Mallabiko eta Ermuko
ermitetako erromerietan edota
herriko jaietan; oraintsuago
Euskal Jaian, *Santa Zezilia*
jaialdietan...



Santixauak



Carmanyk Santixauetan, goitik eta behera zuriz jantzita, zapi gorria saman eta lastozko kapela buruan, bolanderak jaurtitzen zituen. Fiii! Pum! Santixau bezpera baten, txapliguetako batek okerreko bidea hartu eta bera jo zuen. Jausi zen lekuan, Valdespina Jauregi ondoan, lora-txoak daude sarritan eta Santixauetan zapi gorri bat lotzen da bere omenez bertan.

Zezen eguna - paellak

Zezenak dira.

Baltz-baltzak dira.

Harrapatzen bazaitut, harrapatzen bazaitut.

Bertan-bertan hilko zaitut.

Bertan bertan hilko zaitut.

Zezenak datoz

arkupeetatik.

Sua dariola

adarretatik.


Kea, kea...

Santa Ana kaletik.


Zezen Egunean paella egiten. Akorduan daukat nola ibili ginen haizetik babesteko leku baten bila. Herriko bazter guztiak jendez beteta, giroa itzela zen eta halako sardina usainik, ezta portuan ere! Arroza gozoa; gosea guk, bai!



San Martin - astobusa



1989 urtean ospatu zen lehen aldiz *San Martin Azoka* eta bere bereak egin ditu hainbat gauza: txerriaren errifak, taloa, baserritarrak, ortuariak, astobusa, lagunartea, baba-jana, egun horretan Ermuratzea... Hain jendetsua eta partaidetza handiko jai herrikoa izatearen arrazoietako bat da herriak sortu eta suspertutako jaia dela.



Ezekiel Etxebarria



Ezekiel Etxebarria Irusta abadea da hau, eibartarra jaiotzez, baina 56 urte Ermuan abade eman zituen. 1925ean hil zen.

XX. mendearen amaieran, Abadetxeko liburuen artetik berak asmatutako bertso ugari agertu ziren.

Gehienak eliza, doktrina eta ebanjelioaren gaineko bertsoak dira. Baina badira pertsonaia zein herritar xumeak ardatz hartuta idatzi zituen beste hainbat ere.



*Aginaldo, aginaldo,
Bizkaixa ta Durango,
zazpi kastaña,
zortzi intxor.
Aingeruak gera,
zerutik gatoz.
Poltsia baukau baiña,
eskian gatoz.*

*Si si si
No no no
Poltsa bete solomo
Aqui estamos cuatro,
cinco compañía,
sei letania,
ocho odolostia,
por la Virgen de Maria!*


Isabel Lobianokoa

Isabel Lobianokoa, 1583an jaiotako neskatoa, leinu aberats eta boteretsu bateko ondare guztien jabe izatera zegoen deitua, eta izendatua zuen senargaia ere. Baina 13 urte besterik ez zituela, Pedro Idiakez gaztearekin maitemindu eta ihes egin zuen ikasten zegoen Mutrikuko konbentutik, bere maitetxoarekin egun berean ezkonduz. Bahitua eta bere gogoz kontra ezkondu izana leporatu zion familia batek besteari, urteetako iskanbiletan nahastuz; tira-birei amaiera emateko Espainiako Maria enperatrizak esku hartu behar izan zuen. Denbora gutxirako izango ziren senar-emazte: Pedro zazpi urtera hil zen, hiru seme-alaba txiki umezurtz lagata. Gazterik alargunduta, Isabel ez zen berriro ezkondu: Pedroren andrea izan zen betirako.



Valdespina markesa

Valdespina IV. markesa da bibotedun gizon hau, karlisten buruzagi militar izandakoa. Bere izena daramate udaletxea den eraikin ederrak zein haren ondoko kaleek. Felipe V erregeak Orbe kardinala izandako bere arbasoari markes titulua eman zion eta hark “*Val de espina*” izena aukeratu zuen bere jaioterria Ermuaren oroigarritzat: “*espino albar*” edo elorri zuri ugari ernetzen zen ibar baten zegoelako.



Francisco Izaguirre

Herriko maisuaren semea zen *Patxiko*. Lanbidez trenbideko zerbitzu elektrikoen zuzendari eta Bizkaiko Diputazioko erlojugile ofiziala izan zen, eta Ermuko alkate izatera ere heldu zen.


Kuriositate eta kultura handiko gizon ilustratua, etxeko liburutegia hizkuntza desberdinetan idatzitako astronomia, elektronika, fisika, mekanika, topografia, geografia, musika, filosofia, telegrafia eta aritmetikako liburu eta tratatu kontaezinez hornituta zuen.

Berak egindako irratitari esker, Ermuan entzun zen inon baino arinago "*Radio Paris*". Bere etxe gainean, Erdiko Kaleko *Eskolaneko* teilatuan, plazatik ikusi daiteken txosnatxo karratu bat ere egin zuen, teleskopio bat jarri eta gauetan izarrei begiratu ahal izateko.



Alejandro Aranburu “Droget”

Alejandro Aranburu 1885ean jaio zen. “Droget” bezala izan zen ezagutua, beti “drogetan”, brometan ibiltzen zen drogoso eta saltseroa zelako. Mexiko aldera joan eta Pancho Villaren ondoan hango iraultzan hartu zuen parte; bertako historia liburuetan “El vasquito” bezala ezaguna. Pilotari errepublikazale hau, 1931n Eibarren Errepublika aldarrikatu zen apirileko goiz entzutetsu haren bezperan, Ermutik bandera eta klarinete soinuekin antolatutako kalejiraren buru izan zen. “Drogetenitturri” herri aldizkariak berak atondutako Errekalde bideko iturriaren leku-izena darama, ermuarren atsedan eta bainu-leku estimatua.



Santa Zezilia banda



1914. urtean sortu zen
Santa Zezilia banda eta
haren izena izan zuen sasoi
baten Goienkale kaleak.
Tronboia, klarinetea,
txapak, bonboa,
bonbardinoa, danborra,
tronpeta... han ez zen ezer
falta Ermuko kaleak
alaitzeko. Jai usaina
egonez gero, han izango
ziren bandakoak. Jaiegun
handietako menu musikala:
goizean zehar kalez kaleko
biribilketa, meza ostean
kontzertua eta gauean
dantzak plazan,
"bailabliak".



Esku artean gure Historiako zati bat
duzu. Margotuz eta disfrutatuz gure
herrian izandako hainbat pasadizo
ezagutuko dituzu. Denak benetakoak,
liburuetan agertu direnak eta gure
nagusiak kontatutakoak: Kirol eta jai
girokoak, amodiozkoak, historiakoak...
denetarik topatuko duzu!

Testuak: Estibalitz González Solozabal

Marrazkiak: Marta Teran Sainz (San Martingo txerria: Markos Gimeno Vesga)

Ermuko Udala - Euskara Saila

2013ko urtarrilaren 15a, Ermua

